

Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 26/2024 FORU AGINDUA, urtarrilaren 22koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapeneko prozedura eta jarduketetan eskumenak mugatzeari buruzkoa (BAO Urtarrilaren 25ekoa)

Ekainaren 29ko 1694/2005 Foru Aginduaren bidez, orduko Ogasun eta Finantzen foru-diputatuak finantza-ikuskatzaileen eta zerga-ikuskatzaileordeen eskumenen eremua mugatu zuen, garai hartan indarrean zegoen Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduaren laugarren xedapen gehigarriak emandako ahalmena erabiliz (martxoaren 16ko 38/2004 Foru Dekretuaren bidez onartu zen erregelamendu hori).

Kontuan hartu behar da eskumen horiek ezarri zirenetik denbora luzea igaro dela, behin baino gehiagotan aldatu dela Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudia (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Dekretuaren bidez onetsia), ikuskapen-prozedura berriak sortu direla, informazioa aztertu eta tratatzea errazten duten tresna informatikoak erabiltzen direla eta unitate funtzionalak sortuz lana espezializatu dela. hori guztia aintzat hartuta, aipatutako foru-aginduaren edukia aldatu behar da gaur egun dauden ikuskapen-prozeduren erregulazio eta sistematizazio berrira egokitzeko.

Ogasun eta Finantza Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamenduak –urtarrilaren 28ko 3/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsia– 3. artikulua a) letran ezartzen duenaren arabera, Ogasun eta Finantzen Foru Sailaren titularrari zergen ikuskaritzaren antolamendu funtzionala dagokio, ikuskatzaileen eskumenen mugatzea barne.

Arestian azaldutakoa dela bide,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Finantza-ikuskatzaileen eskumenak.

Finantza-ikuskatzaileen eskumena da ikuskapen-prozedura guztiak izapidetu eta bideratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatu behar dituen zerga guztiei eta gainerako tributu-kontzeptuei dagokienez, hargatik eragotzi gabe foru agindu honetako hurrengo artikuluetan zerga-ikuskatzaileordeei, zerga berezien ikuskatzaileordeei eta agente fiskalei esleitzen zaizkien eskumenak.

2. artikulua. Zerga-ikuskatzaileordeen eskumenak.

1. Zerga-ikuskatzaileordeen eskumena da ikuskapen-prozedura guztiak izapidetu eta bideratzea, indarrean dagoen araudiaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatu behar dituen zerga guztiei eta gainerako tributu-kontzeptuei dagokienez, eta ahalmena dute jarduketak amaitzeko eta dagozkion ikuskapen-aktak sinatzeko, edo zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozedurei eta egiaztapen murriztuko zein egiaztapen mugatuko prozedurei amaiera emateko txostenak egiteko, honako kasu hauetan:

- a) Beti, pertsona fisikoei dagozkien egiaztapeneko eta ikerketako prozedurak edo zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozedurak badira. Pertsona fisikoek jarduera ekonomikoak egiten badituzte, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian xedatutakoaren arabera, zerga-ikuskatzaileordeak eskudunak izango dira, baldin eta egiaztatu beharreko zergaldian jarduera horien ziozko diru-sarrerak 6.000.000 eurotik gorakoak ez badira guztira.

- b) Sozietateen gaineko zerga edo establezimendu iraunkorraren bidez diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaindu behar duten erakundeak direla- eta egiten diren egiaztapeneko eta ikerketako prozeduren kasuan edo zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozedurenean, baldin eta egiaztatu beharreko zergaldian daukaten eragiketa-bolumena garbia 6.000.000 eurotik gorakoa ez bada.
 - c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 34. artikuluko 3. apartatuan aipaturiko erakundeak direla-eta egiten diren egiaztapeneko eta ikerketako prozeduren kasuan edo zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozedurenean, baldin eta egiaztatu beharreko zergaldian daukaten eragiketa-bolumena 6.000.000 eurotik gorakoa ez bada.
2. Hala ere, aurreko apartatuan ezarritako mugak ez dira aplikatuko Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 144. artikuluko 2. apartatuaren lehen paragrafoan aipaturiko egiaztapeneko eta ikerketako prozeduretan, ez eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapenaren Araudiaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 24ko 5/2012 Dekretuaren bidez onetsia) 29. artikuluko 2. apartatuan aipaturiko egiaztapeneko eta ikerketako prozeduretan ere.

Halaber, muga horiek ez zaizkie aplikatuko egiaztapen murriztuko eta egiaztapen laburtuko prozedurei, ez eta zerga-ikuskatzaileordeek informazioa lortzeko egiten dituzten jarduketei ere.

- 3. Aurreko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatzeko kontuan hartuko diren diru-sarreraren guztizkoa eta eragiketa-bolumena zergapekoak aitortutakoak izango dira.
- 4. Aurreko 1. apartatuaren a) eta b) letretan ezarritako muga kuantitatiboak aplikatzeko, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari, sozietateen gaineko zergari edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari dagozkienak hartuko dira kontuan, kasuaren arabera, eta ondorioak izango dituzte dagozkien zergaldietan sortutako zerga-egitateei dagokienez egiaztatuko diren zerga guztietan.

Aurreko 1. apartatuaren c) letran jasotako kasuetan, erakundearen eragiketa-bolumena hartuko da kontuan, eta egiaztatuko diren tributu guztietarako izango ditu ondorioak, bai erakundearentzat berarentzat, bai bazkideentzat, jaraunsleentzat, erkideentzat edo partaideentzat, pertsona horiei esleitu behar zaizkien erretegi dagokienez.

Zergapeko batekin lotutako prozedurak eta jarduketak hasteko datan amaitu ez bada pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitortpena –kasuaren arabera–borondatez aurkezteko epea, eta zerga horiek ez beste tributu-kontzeptu bat egiaztatzeko soilik, adierazitako hasiera-data horretan aitortpena aurkezteko -epea amaituta daukaten zerga horien azken zergaldian aitortutako muga kuantitatiboak hartuko dira erreferentziatzat.

3. artikulua. Ikuskatzaileordeen eskumenak fabrikazioaren gaineko zergei dagokienez egiten diren ikuskapeneko prozedura eta jarduketetan.

Zerga berezien eta tributuen ikuskatzaileordeek eskumena izango dute fabrikazioaren gaineko zerga bereziak ikuskatzeko prozedura eta jarduketa guztiak izapidetu eta bideratzeko, indarrean den araudiaren arabera Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatu behar baditu.

4. artikulua. Agente fiskalen eskumenak.

Agente fiskalek eskumena izango dute Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 138. artikuluan eta hura garatzeko erregelamenduzko xedapenetan arautzen diren ikuskapen -prozeduren eta -jarduketaren artean esleitzen zaizkienak egiteko –salbu eta egiaztapeneko eta ikerketako prozedurak eta zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozedurak–, eta ez da aplikatuko inolako muga kuantitatibo gehigarririk.

Hala ere, laguntzaile gisa jardun ahal izango dute, informazioa biltzen eta aztertzen, egiaztapeneko eta ikerketako prozeduretan eta zergapekoa bertaratu gabeko erregularizazio-prozeduretan.

5. artikulua. Eskumenen banaketa organikoa.

Foru-agindu honetan xedatutakoak ez die aldaketarik ekarriko zerga-ikuskapeneko prozeduren arloko eskumenak banatzeko arauari; izan ere, prozedura horiek urtarilaren 24ko 5/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga- ikuskapenaren Araudiaren 2. artikuluko 5. apartatuaren lehen paragrafoan aipatzen den araudia izango dute aginduzko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Xedapen Indargabetzailea Bakarra. Arauak indargabetzea.

Foru-agindu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoaren aurka edo kontraesanean dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, bereziki, 1694/2005 Foru Agindua, ekainaren 29koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ikuskapeneko prozeduren inguruko eskumenen banaketari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Azken Xedapen Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru-agindu hau 2024ko otsailaren 1ean jarriko da indarrean.